

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila****Bizkaiko Foru Aldundiaren 8/2019 FORU DEKRETUA, otsailaren 19koa, «Udalekuak 2019» udako kanpaina arautzen duena.**

Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak ezartzen du, 7.c.2 artikuluan, lurralde historikoei dagokiela, nori bere lurraldearen barruan, Erkidego Osorako Erakundeen legeria betearaztea honako arlo hauetan, besteak beste: erkidegoaren garapena; haur, gazte eta adinekoentzako politika, eta aisialdia. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek ere zuzenean jardun dezakete arlootan.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren arabera, sail honen eskumena da umeak eta nerabeak artatzea udaleku eta kanpamentuetako jardueretan.

Eskumen hori gauzatzeko, dekretu honen xedea da aisia eta astialdiaren arloan umeentzako hainbat jarduera antolatzea, Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiekin koordinaturik, umeak naturan beste ume batzuekin jolastea sustatzeko eta neska-mutil bizkaitarrei oporraldietan ondo pasatzeko aukera emateko.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru-dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezotasunari buruzko txostena.

Foru diputatuen eskumena da Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan, hain zuzen ere, hori xedatzen baitu Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko ostailaren 19ko bileran aztertutik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. — «Udalekuak 2019» udako kanpainaren oinarriak onartzea

«Udalekuak 2019» udako kanpaina garatzeko oinarri arautzaileak onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarri horien testua.

**I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria. — «Udalekuak 2019» udako kanpainaren xedea**

1. «Udalekuak 2019» udako kanpainaren xedea da adingabeentzako 1.502 plaza eskaintzea, hiru foru aldundiek eskaintako instalazioetan.
2. Honako hauek dira «Udalekuak 2019» udako kanpainaren helburuak:
 - a) Bizkaiko umeei oporrak naturarekin harremanetan igarotzeko aukera eskaintzea.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko beste parte hartzaile batzuekin jolasteko eta elkarrekin igarotzeko aisialdia sustatzea, umeen aberastasun pertsonalerako.
 - c) Euskara izatea bizi eta harremanak izateko hizkuntza, «Udalekuak 2019» udako kanpainan parte hartzen dutenen komunikazio-bidea izango baita.

2. oinarria. — Parte-hartzaileak

«Udalekuak 2019» udako kanpainan, 2006. urtetik 2012. urtera (urte bietan barne) jaiotako pertsona guztiak parte hartu ahal izango dute, baina, horretarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egon beharko dute foru dekretu hau argitaratzen denean.

3. oinarria. — «Udalekuak 2019» udako kanpainaren antolamendua

1. Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiekin batera antolatuko da «Udalekuak 2019» udako kanpaina, eta 2019ko uztailaren 1etik 29ra bitartean (egun bi horiek barne) garatuko da, 7 eguneko egonaldietan.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak guztira 1.502 plaza eskainiko ditu Udalekuak 2019 kanpainan; haien artean, erreserba hauek egingo dira:
 - a) Plazen %5 erreserbatuko du gutxienez ere %33ko desgaitasuna duten pertsonentzat edo ofizialki aitortutako mendetasun-gradua dutenentzat, betiere egoki integratu ahal badira honelako jarduera batean.
 - b) Plazen %1 erreserbatuko du Bizkaiko Foru Aldundiaren babes berezia duten kolektiboetako kideentzat; plaza horiek zuzenean adjudikatuko dira, arloko eskumena duen foru-sailak eskatuta.
3. Kanpaina bideratzeko, adingabeak taldetan antolatuko dira, adin-tarte hauen arabera:
 - a) 2011n edo 2012an jaiotakoak.
 - b) 2008an, 2009an edo 2010ean jaiotakoak.
 - c) 2006an edo 2007an jaiotakoak.
4. «Udalekuak 2019» udako kanpainaren eskaintzan, bi hizkuntza-eredu egongo dira:
 - a) Euskara: komunikazioa euskara hutsean izango da; beraz, adingabeek euskaraz jakin behar dute.
 - b) Elebiduna: euskara eta gaztelania erabiliko dira.

II. TITULUA**ARAUBIDE JURIDIKOA****4. oinarria. — Aplikatu beharreko araudia**

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: 4/1990 Foru Araua, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoarena eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

**III. TITULUA
PROZEDURA****5. oinarria. — Eskabidea aurkezteko lekua eta epea**

1. «Udalekuak 2019» udako kanpaina parte hartzeko eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko dira (ReKalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo), foru dekretu honi «inprimaki» gisa erantsitako eredu ofizialean, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztuko dira, edo web-orri honen bidez: web www.bizkaia.eus/udalekuak

2. Eskabideak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 7tik 18ra izango da, egun bi horiek barne.

6. oinarria. — Eskabideak betetzeko modua eta erantsi beharreko agiriak

1. Parte hartu nahi duen adingabe bakoitzak inprimaki batean baino ezin izango du izena eman, eta inprimaki bakoitza eskabide bakartzat joko da.

Inprimaki bakoitzean, gehienez ere hiru partaidek eman dezakete izena, eta, beren adinaren eta lehentasun-hurrenkeraren arabera, bost txanda eta instalazio eskatu ahal izango dituzte gehienez.

2. Inprimakian lehenengo agertzen den adingabearen aita, ama edo tutorea izango da eskatzailea.

Eskabidean lehenengo postuan izena ematen duen adingabearen neba-arrebak ez diren adingabeak agertzen badira, adingabe horien guraso edo tutoreek baimen espre-sua eman behar diote eskatzaileari ume horiek inskribatzeko; horretarako, foru-dekretu honen I. eranskina beteko dute.

3. Pertsona batek inprimaki batean baino gehiagotan ematen badu izena, aurkeztutako azkena baino ez da hartuko kontuan.

Hala ere, lehenengo inprimakian pertsona gehiago badaude, pertsona horientzat baliozkoa izango da eskabidea, eta geroago beste inprimaki batean izena eman duen pertsona baino ez da joko atzera egindakotzat eskabide horretan.

4. Desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazetarako eskabideetan, egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, baita Informazio Pertsonala buruzko Fitxa ere.

Desgaitasunik edo mendetasunik ez duen pertsona batek desgaitasuna edo mendetasuna duen batekin batera laguntzaile gisa parte hartu nahi badu, instalazio berak, txanda berak eta adin-tarte bera eskatu beharko ditu.

5. Eskabidea modu presentzian aurkezten denean, foru-dekretu honen II. eranskina (Datuak babesteko informazioa) aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

6. Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat, Kultur Ekintzako Zerbitzuak beharrezkoak diren egiaztapen guztiak egingo ditu, ziurtatzeko eskatzaileek adierazi eta administrazio publikoen esku dauden datuak egiazkoak direla.

7. oinarria. — Eskabideak zuzentzea eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara eta Kulturako Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die interesdunei.



3. Martxoaren 25etik aurrera, erregistratutako eskabideen zerrenda argitaratuta egongo da www.bizkaia.eus/udalekuak web-orrian. Kultur Ekintzako Zerbitzuko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalean ere eskuratu ahal izango dute interesdunek zerrenda hori.

Eskabidea epe barruan aurkeztu arren, zerrenda horretan agertzen ez diren pertsonen 10 egun naturaleko epea izango dute, zerrenda hori argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta, erreklamazio aurkezteko.

8. oinarria. – Informazioa eta aholkularitza

1. «Udalekuak 2019» udako kanpainari buruzko informazio guztia web orri honetan argitaratuko da: www.bizkaia.eus/udalekuak

2. Euskara eta Kulturako Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalak behar den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, (horretarako, <http://www.bizkaia.eus/laguntza> helbidea erabil daiteke).

9. oinarria. – Plazen adjudikazioa

1. Plazak behin-behinekoz adjudikatuko dira Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, zozketa publiko batek ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera. Zozketa hori 2019ko apirilaren 10eko 10:00etan egingo da, notarioaren aurrean, Bilboko Recalde zumarkaleko 30 zenbakiko 1. solairuan dagoen multimedia-aretoan. Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

2. Plazen erreserba formalizatzeko, behin-behineko adjudikaziodunek dokumentazio hau bidali beharko dute, Kultura Zuzendaritza Nagusiak emandako gutun-azalean (frankeo ordaindua duena) edo, bestela, www.bizkaia.eus/udalekuak web-orriaren bitartez, jakinarazpenean ezarritako epean:

- a) Inskripzio-orria, behar bezala bete eta sinatua. Ezinbestekoa izango da baimen espresua ematea adingabeen datu medikoak lagatzeko adingabeak jasoko dituen instalazioari zein instalazio horren ardura duen foru-aldundiari. Kanpainatik kanpo geratzeko arrazoia izango da baimen hori ez ematea.
- b) «Udalekuak 2019» udako kanpainan parte hartzeko kuota ordaindu izanaren frogagiria.
- c) Partaidearen argazki berria (NAN/pasaportean erabiltzen denaren modukoa).
- d) Fitxa medikoa, behar bezala bete eta sinatua.
- e) Osakidetzako osasun-txartelaren fotokopia edo parte-hartzailearen beste edozein gaixotasun-aseguru pribaturena.

3. Plazaren erreserba formalizatu ondoren, bidaia-txartela eskuratu ahal izango da. Adingabeak instalazioetatik itzultzen direnean modu egokian jasotzen direla ziurtatzeko, gurasoak edo tutoreak txartel hori (behar bezala beteta) aurkeztu beharko diote autobuseko arduradunari. Hala behar denean, beste pertsona bati eman diezaioke baimena umea jasotzeko; horretarako, bidaia-txartelean dagokion atala bete behar dute.

4. Behin-behineko adjudikazio honetan aldatetak egon daitezke, atzera egitean arabera.

5. Plazaren adjudikazioa ez da behin betikoa izango kuota ordaindu dela eta aurreko zenbakian eskatutako dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatzen ez den bitartean.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez egingo da plazen behin betiko adjudikazioa, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta jakinaraziko zaie interesdunei.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari; horretarako, hilabeteko (1) epea egongo da, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

**10. oinarria. — Desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonentzako plazen adjudikazioa**

1. Berariaz sortutako ebaluazio batzordearen proposamenez egingo da desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonak gizarteratzeko txandako plazen adjudikazioa.

Ebaluazio batzordeko kideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez izendatuko dira. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da Hauek izango dira batzorde horretako kideak:

- a) Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.
- b) Gizarte eta Hezkuntza Programen Ataleko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.
- c) Kultura Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat, hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango duena; batzordeko idazkaria izango da.
- d) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak izendatutako bi pertsona.
- e) Desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen arloan urte osoan lan egiten duten erakundeetako 6 ordezkari gehienez ere. Erakunde bakoitzak jakinaraziko dio Kultura Zuzendaritza Nagusiari nor den bere ordezkaria ebaluazio batzordean.
- f) Beharrezkotzat jotzen diren aditu guztiak, batzordeari hartu behar dituen erabakietan aholkua eman diezaioten. Adituek hitz egiteko eskubidea izango dute batzordearen bileretan, baina ez botoa emateko eskubiderik.

Batzordeko kideek ezin izango dute prozeduran parte hartu eta errefusatuak ahal izango dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako kasuetan.

2. Hautaketa-prozesuak fase hauek izango ditu:

- a) Zozketa: Mendetasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonen aurkeztutako eskabideak notario aurreko zozketan sartuko dira, txanda orokorrekoekin batera. Hala, lehentasun-hurrenkera ezarriko da.
- b) Aukeraketa-fasea: Zozketaren hurrenkerari zorrotz jarraiturik, eta kasuak aztertu ondoren, ebaluazio batzordeak eskabideak ebaluatuko ditu, alderdi hauek kontuan hartuta:
 - 1) Lehen aukeraketan hautatutako pertsonaren egokitasuna, kontuan hartuta zer desgaitasun-gradu eta mendetasun-gradu daukan ofizialki onartuta.
 - 2) «Udalekuak 2019» udako kanpainan integrazteko aukera, eta lehen aukeraketan hautatutako pertsonaren profila egokia den instalazio eta jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta.
 - 3) Lehen aukeraketan hautatutako pertsonak adjudikatutako plazan parte hartzeko, langile espezifikorik behar den.

Ebaluazio batzordeak desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonentzat gordetako plazak emateko edo ukatzeko proposamena egingo dio Kulturako zuzendari nagusiari. Proposamen horretan, langile espezifikorik behar den zehaztuko du.

3. Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez egingo da desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen txandarako erreserbatutako plazen behin-behineko adjudikazioa.

Behin-behineko adjudikazio honetan aldaketak egon daitezke, atzera egiteen arabera.

Desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonentzat gordetako plazetatik hutsik geratzen direnak txanda orokorrera pasatuko dira.

4. Kuota ordaindu dela egiaztatu ondoren eta 9. oinarriko bigarren zenbakian eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, formalizatuta egongo da plazaren erreserba eta bidaia-txartela eskuratu ahal izango da. Agiri hau nahitaez aurkeztu behar du adingabearen arduradunak, instalazioetatik itzultzean umeak arazorik gabe jasotzen direla bermatzeko.



Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez egingo da plazen behin betiko adjudikazioa, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta jakinaraziko zaie interesdunei.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari; horretarako, hilabeteko (1) epea egongo da, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

11. oinarria. — Itxarote-zerrenda

1. Zozketa egin eta behin-behineko adjudikazioa egin ondoren, lekurik lortzen ez duten eskabideak itxarote-zerrenda batean sartuko dira, zozketan ezarritako hurrenkeraren arabera.

Behin-behineko adjudikazioaren ondoren jakinarazpenean plaza erreserbatzeko ezarritako epea amaituta, bete gabe gelditzen diren plazak bigarren adjudikazio batean beteko dira, itxarote-zerrendaren hurrenkeraren arabera.

2. Bigarren adjudikazioan geratzen diren plaza hutsak —kontuan hartuta «Udalekuak 2019» udako kanpaina hasteko denbora gutxi dagoela— itxarote-zerrendaren hurrenkerari zorrotz jarraituta beteko dira; interesdunei jakinaraziko zaie plaza lortu dutela eta txanda guztiak behar bezala antolatzeko aukera ematen duen epe baten barruan izapidetu behar dutela dokumentazio guztia.

3. Itxarote-zerrendan dauden pertsonen adieraziko zaie zein postutan dauden eska-tu duten aukera bakoitzari dagokion itxarote-zerrendan.

Postu horrek orientazio gisa baino ez du balio, itxarote-zerrendako postua adjudikatzeko orduan zenbait gauza hartu behar baitira kontuan: eskabide berean izena eman duten pertsonen kopurua, pertsona horietako bakoitzak aukeratutako instalazioak eta txandak. Beraz, itxarote-zerrendako postuak ez dakar ezinbestez plaza lortzea adjudikazio guztietan.

12. oinarria. — Kuota

1. Kuotak ordaintzeko unean kolonia eta kanpamentuetako egonaldien prezio publikoak arautzeko indarrean dagoen Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuak zehaztuko ditu «Udalekuak 2019» udako kanpainen parte hartzeko prezio publikoak.

2. Kuota ordaintzeko, txanda bakoitzari dagokion diru-kopuruaren sarrera egin beharko da, dela horretarako berariaz emandako ordainagiriaren bidez, dela bide telematikoa erabilita, hau da, web-orri honetan dagoen ordainketa-pasabidearen bidez: www.bizkaia.eus/udalekuak

13. oinarria. — Kuotak itzultzea

1. Aurreko oinarrian ezarritako kuotak behin ordainduz gero, haien zenbatekoa hurrengo inguruabarretariko bat gertatzen denean bakarrik itzuliko da; horretarako, aurretik idatzizko eskabidea egin behar da eta frogagiriak aurkeztu. Hauek dira inguruabarrak:

- a) Gaixotasuna edo istripua; medikuaren frogagiriak aurkeztu beharko dira.
- b) Txandetara joatea ezinezko egiten duten ustekabeak edo behar larriak; horretarako, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren iritziz justifikazio nahikoa egon behar du.

Behin betiko plaza adjudikatuta daukaten parte-hartzaileen kasuan, nota txarrak ateratzea ez da justifikazio nahikoa izango kuota itzultzeko.

2. Txanda hasi bada, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan baino ez da itzuliko kuota. Kasu horietan, eman ez diren egunetako zati proportzionala itzuliko da.

3. Kuotak itzultzeko eskabideak egiteko, gehienez ere berrogeita bost (45) egun naturaleko epea egongo da parte-hartzaileari azken txanda adjudikatzen zaion egunetik hasita, eta Kulturako zuzendari nagusiak ebatziko ditu, eskabideak aurkezten direnetik hilabeteko (1) epea igaro aurretik. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, eskabideak ezetsizat joko dira; hala ere, gero ebazpen espresua eman eta jakinarazi ahal izango da.

**14. oinarria. — «Udalekuak 2019» udako kanpainako parte-hartzaileek bete behar dituzten arauak**

1. Udalekuak bizikidetzarako eta balioak ikasteko lekuak dira, eta, beraz, parte-hartzaileek bizikidetzara eta lankidetzako arau batzuk bete behar dituzte. Hori dela eta, parte-hartzaile batek arauak behin eta berriro hausten baditu, instalaziotik kanporatu ahal izango da. Kasu horretan, gurasoak edo tutoreak arduratuko dira udalekuetatik eramateaz.
2. Instalazioaren arau orokorrez gainera –instalaziora heltzean emango zaie haien berri-, honako hauek ere bete behar dituzte parte-hartzaileek:
 - a) Jarduera guztietan parte hartzea.
 - b) Udalekuen dinamika ez apurtzearen, ezin izango da bisitarik egin.
 - c) Sakelako telefonoen, musika-errepuzitzaileen (mp3, mp4, ...), argazki-kameren edo beste edozein aparatu elektronikoren erabilera mugatuko da, jardueraren garapena oztopa ez dezaten.
 - d) Ezin da irten aterpetxetik begirale taldearen baimenik gabe.
 - e) Gainerako parte-hartzaileak errespetatu behar dira; ez da onartuko arraza, erlijio, sexu-joera, itxura fisikoa edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta inor eraso edo ofenditu dezakeen adierazpenik edo jokabiderik.
3. Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileei objektu pertsonalen bat galdu, apurtu edo hondatuz gero.

16. oinarria. — Datuen babesa

Deialdi hau dela-eta ematen diren informazioak eta datuek arau hauen babesa dute: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua derogatzen duena.

AZKEN XEDAPENAK**Azken xedapenetako lehenengoa. — Ahalmena ematea**

Bizkaiko Foru Aldundiako Kulturako zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio «Udalekuak 2019» udako kanpaina garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko otsailaren 19an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



INPRIMAKIA / FORMULARIO UDALEKUAK 2019

1 Tutorea edo gurasoak / Padre, madre o tutor/a		Adingabea/Menor	Osasun txartela zb. / N.º Tarjeta Sanitaria	
Izen-deiturak / Nombre y apellidos (Begiratu atzean / Ver reverso)		Izen-deiturak / Nombre y apellidos		
NAN / D.N.I.		Sexu / Sexo G / H <input type="checkbox"/> E / M <input type="checkbox"/>	Eredua / Modelo A <input type="checkbox"/> B <input type="checkbox"/> D <input type="checkbox"/>	
Helbidea / Dirección		Jaioteguna / Fecha de nacimiento		NAN / DNI
Herria / Población		PK / C.P.	Euskera benetan menperatzen du? / Domina verdaderamente el euskera? Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	Desgaitasun edo menpekotasunik duen pertsona / Persona con discapacidad y/o dependencia Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>
Familia ugarikoa / Familia numerosa Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	Diru-sarrera Bermatzeko Errenta / Renta de Garantía de Ingresos Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	1. telefonoa / Teléfono 1		2. telefonoa / Teléfono 2
Posta elektronikoa / Correo electrónico				
AUKERAK / PREFERENCIAS				
Aterpetxea / Instalación		Txanda / Turno	Aterpetxea / Instalación	
1			4	
2			5	
3				
2 Tutorea edo gurasoak / Padre, madre o tutor/a		Adingabea/Menor	Osasun txartela zb. / N.º Tarjeta Sanitaria	
Izen-deiturak / Nombre y apellidos (Begiratu atzean / Ver reverso)		Izen-deiturak / Nombre y apellidos		
NAN / D.N.I.		Sexu / Sexo G / H <input type="checkbox"/> E / M <input type="checkbox"/>	Eredua / Modelo A <input type="checkbox"/> B <input type="checkbox"/> D <input type="checkbox"/>	
Helbidea / Dirección		Jaioteguna / Fecha de nacimiento		NAN / DNI
Herria / Población		PK / C.P.	Euskera benetan menperatzen du? / Domina verdaderamente el euskera? Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	Desgaitasun edo menpekotasunik duen pertsona / Persona con discapacidad y/o dependencia Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>
Familia ugarikoa / Familia numerosa Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	Diru-sarrera Bermatzeko Errenta / Renta de Garantía de Ingresos Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	1. telefonoa / Teléfono 1		2. telefonoa / Teléfono 2
Posta elektronikoa / Correo electrónico				
AUKERAK / PREFERENCIAS				
Aterpetxea / Instalación		Txanda / Turno	Aterpetxea / Instalación	
1			4	
2			5	
3				
3 Tutorea edo gurasoak / Padre, madre o tutor/a		Adingabea/Menor	Osasun txartela zb. / N.º Tarjeta Sanitaria	
Izen-deiturak / Nombre y apellidos (Begiratu atzean / Ver reverso)		Izen-deiturak / Nombre y apellidos		
NAN / D.N.I.		Sexu / Sexo G / H <input type="checkbox"/> E / M <input type="checkbox"/>	Eredua / Modelo A <input type="checkbox"/> B <input type="checkbox"/> D <input type="checkbox"/>	
Helbidea / Dirección		Jaioteguna / Fecha de nacimiento		NAN / DNI
Herria / Población		PK / C.P.	Euskera benetan menperatzen du? / Domina verdaderamente el euskera? Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	Desgaitasun edo menpekotasunik duen pertsona / Persona con discapacidad y/o dependencia Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>
Familia ugarikoa / Familia numerosa Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	Diru-sarrera Bermatzeko Errenta / Renta de Garantía de Ingresos Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>	1. telefonoa / Teléfono 1		2. telefonoa / Teléfono 2
Posta elektronikoa / Correo electrónico				
AUKERAK / PREFERENCIAS				
Aterpetxea / Instalación		Txanda / Turno	Aterpetxea / Instalación	
1			4	
2			5	
3				

Behan sinatzen duenak agiri honetan adierazitakoaren erantzukizuna hartzen du eta badaki zer ezaugarri eta arau dituen kanpainak eta zer ondorio dakartzan haiak ez betetzeak. La persona abajo firmante, se responsabiliza de lo manifestado y conoce las características y normas de la campaña, así como las consecuencias de su incumplimiento.

Sinadura / Firma

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes


eguna / día

n, 2019ko

k



OTI ez izanez gero, edo ondoko irudiekin bat egiten ez badu, gaztearen jaiote-guna sartu hurrengo formatua-ekin: eehhuuuu (esaterako, gaztea 2006ko maiatzaren 15ean jaio bazen, honela jarri behar duzu:15052006).



En caso de no disponer de TIS, o que no se corresponda con las imágenes, introduzca la fecha de nacimiento de la persona joven con el siguiente formato: ddmmaaaa (por ejemplo, si la persona joven nació el 15 de mayo de 2006, se deberá consignar de la siguiente manera 15052006

FORMULARIOA BETETZEA

1. Iaukian agertzen den ama, aita edo tutorea joko da eskatzailetzat, eta hark sinatuko du formularioa.
2. Lehen postuan izena emanda dagoen umearen neba-arreba ez diren adingabeen gurasoek edo tutoreek baimena eman behar diote eskatzaileari, eskatzaileak eskabidea haien izenean bete dezan (l. eranskina).
3. Ezinbesteko baldintzak dira hauek:
 1. Zuzen betetzea adingabeen zein haien arduradunen datuak (NANA, izena, abizenak, telefona).
 2. Parte-hartzailearen osasun-txartelaren zenbakia, jaiotza-data eta NANA, halakorik edukiz gero.
 3. Parte-hartzailea Bizkaiko edozein udalerritan erroladuta egotea.
 4. Adingabea parte-hartzaileak euskara jakitea.
 5. Adieraztea ea parte-hartzaileak desgaitasunik edo mendekotasunik duen.
 6. Instalazioak eta txandak aukeratzekoan jaiotza-urtea hartu behar da kontuan beti, ez egungo adina.
 - 2011. eta 2012. urteetan jaiotakoak.
 - 2008, 2009 eta 2010. urteetan jaiotakoak.
 - 2006. eta 2007. urteetan jaiotakoak.
4. "Eredua" da adingabea eskolatuta dagoen hizkuntza-eredua.

KOMUNIKAZIORAKO HIZKUNTZA

1. Euskarazko udalekuak.- Komunikaziorako hizkuntza bakarra euskara izango da. Parte-hartzailea gai izan behar da hizkuntza horretan komunikatzeko bere kideekin zein begiraleekin.
2. Udaleku elebidunak.- Komunikazioa EAEko hizkuntza ofizial bietan egitea bermatzen da. Euskararen erabilera udalekuaren parte hartzen duten gehienek euskara mailaren araberakoa izango da.

DESGAITASUNA EDO MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK

1. Parte-hartzaileak desgaitasun bat (fisikoa, psikikoa edo sensoriala) edo mendekotasuna badu, hala adierazi behar du, beharrezko neurriak hartu ahal daitezkeen pertsona hori artatu eta udalekuaren kanpainan modu egokian parte hartzeko.
2. Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalean (Recalde zumarkalea, 30, 1. solairua, Bilbo) emango zaizuen edo www.bizkaia.eus/udalekuak webgunean eskuragarri izango den "Umearen Informazio Fitxa" betetzea.

OHARRAK

1. Formulario bakoitzean gehienez ere hiru parte-hartzaile ager daitezke, eta adin-tarte berekoak zein tarte ezberdinetakoak izan daitezke.
2. Parte-hartzaile bakoitzeko gehienez ere bost instalazio edo txanda eska daitezke.
3. Parte-hartzaile bakoitza formulario bakarrean ager daiteke. Pertsona batek inprimaki batean baino gehiagotan ematen badu izena, aurkeztutako azkena bakarrik izango da baliozkoa.
4. Inprimaki bakoitza eskabide bakartzat joko da; eskabide baten zenbakia ateratzen bada zozketan, eskabide horretan izena emanda dauden adingabe guztiei adjudikatuko zaie plaza.
5. BFAk bermatuko du formulario batean agertzen diren guztiak instalazio eta txanda berberak aukeratu badituzte eta hurrenkeran berean orduan parte-hartzaileok batera joango direla udalekura, baldin eta lekua adjudikatzen bazaie.
6. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak edo familia ugari bateko kide direnek hobariak izango dituzte kuotetan.
7. Lekurik lortu ez eta itxaronzerrandean geratzen diren parte-hartzaileei, egiten den jakinarazpen bakoitzean, adieraziko zaie zer postutan dauden itxaronzerrandean haiek egin duten aukera bakoitzean.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA: martxoaren 7tik 18ra.

ADJUDIKAZIOA: apirilaren 10ean, notario aurreko zozketa publiko bidez. Kanpaina honi buruzko informazio guztia webean argitaratuko da.

CUMPLIMENTACIÓN DEL FORMULARIO

1. Se considera persona solicitante a la madre, el padre o tutor/a que figure en la casilla nº 1, que será quien firme la misma.
2. Los padres/madres o personas tutoras de la persona menor que no sea hermana de la inscrita en primer lugar, deberán autorizar a la persona solicitante, para que en su nombre cumplimente la solicitud, (Anexo I).
3. Son requisitos imprescindibles:
 1. Cumplimentar correctamente los datos de las personas responsables de los y las menores (DNI, Nombre, Apellidos, Teléfono).
 2. Número de la Tarjeta Sanitaria, Fecha Nacimiento y DNI de la persona participante si dispone.
 3. Estar empadronada la persona participante en cualquier municipio de Bizkaia.
 4. Conocimiento de euskera de las personas menores participantes.
 5. Indicar si la persona participante padece discapacidad y/o dependencia.
 6. Al seleccionar las instalaciones y turnos hay que tener siempre en cuenta el año de nacimiento (no la edad actual).
 - personas nacidas en 2011 y 2012.
 - personas nacidas en 2008, 2009 y 2010.
 - personas nacidas en 2006 y 2007.
4. "Modelo" se refiere al modelo lingüístico en que está escolarizado la persona menor.

IDIOMA DE COMUNICACIÓN

1. Colonias en Euskera.- El Idioma de comunicación será únicamente el euskera. La persona participante tiene que ser capaz de comunicarse en dicha lengua tanto con el monitorado como el resto de participantes.
2. Colonias en Bilingüe.- Se garantiza la comunicación en los dos idiomas oficiales en la CAPV. La utilización del euskera queda condicionada al conocimiento general de dicha lengua entre las personas participantes de la colonia.

PERSONAS CON DISCAPACIDAD Y/O DEPENDENCIA

1. Si la persona participante presenta algún tipo de discapacidad física, psíquica o sensorial, y/o dependencia deberá hacerlo constar, al objeto de adoptar las medidas necesarias para su adecuada atención y participación en la campaña.
2. Cumplimentar la Ficha de Información Personal que se le facilitará en la Sección de Programas Socioeducativos, calle Alameda Recalde 30 - 1º Bilbao, y estará igualmente disponible en la web www.bizkaia.eus/udalekuak

OBSERVACIONES

1. En cada formulario pueden figurar un máximo de 3 participantes, pudiendo ser de la misma o diferente franja de edad.
2. Cada participante puede solicitar hasta un máximo de 5 instalaciones o turnos.
3. Cada participante solo podrá aparecer en un formulario. Si una persona se inscribiera en más de un formulario, a efectos de solicitud tan sólo se considerará como válido el presentado en último lugar.
4. Cada formulario será tratado como una única solicitud: si el número de solicitud resultara agraciado, se adjudicará plaza a todos los menores inscritos en la misma.
5. La DFB garantiza que si en un formulario sus componentes han solicitado las mismas instalaciones, turnos y en el mismo orden de preferencia, las personas menores participantes acudirán juntas a la misma colonia en el caso de que les sean adjudicadas las plazas.
6. Las personas perceptoras de la Renta de Garantías de Ingresos o pertenecientes a una Familia Numerosa obtendrán una bonificación en sus cuotas.
7. A las personas que no obtengan plaza y se encuentren en lista de espera, se les informará, en cada una de las notificaciones que se le realicen, de la posición que ocupan en dicha lista de espera para cada una de las opciones elegidas.

PLAZO DE SOLICITUDES: del 7 al 18 de marzo.

ADJUDICACIÓN: el día 10 de abril, mediante sorteo público ante notario. Toda la información referente a esta campaña será publicada en la web.

www.bizkaia.eus/udalekuak



I. INPRIMAKIA / ANEXO I

**SINADURAK ETA BORONDATEZKO ORDEZKARITZA EMATEA
FIRMAS Y OTORGAMIENTO DE REPRESENTACIÓN VOLUNTARIA**

1. Nik / Yo, _____ k, NAN zk. / con DNI _____
inprimakia betetzen duen pertsonaren izen-abizenak / nombre y apellidos de la persona que rellena el formulario
Adierazten dut emandako informazioa egiazkoa dela / Declaro que la información ofrecida es veraz.

Sinadura / Firma

2. Nik / Yo, _____ k, NAN zk. / con DNI _____
ordezkariak eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak / nombre y apellidos de la persona que solicita la representación
Nire ordezkari izateko ahalmena ematen diot persona honi / Otorgo mi representación a _____
ordezkariaren izen-abizenak / nombre y apellidos de la persona a la que otorga su representación
NAN zk. / con DNI _____ eta telefonoa / y teléfono _____
Eskabidea izapidetzeko eta behar diren egintza guztiak egiteko, nire ardurapean parte hartzen duen adingabeok «Udalekuak 2019» kanpainan parte hartzeko aukera izan dezan / Para realizar la tramitación de solicitud y cuantas acciones sean necesarias para que la persona menor participante bajo mi responsabilidad pueda acceder a la campaña «Udalekuak 2019».

_____n, 2019ko _____(ren) _____(e)(a)n.
Tokia / lugar hilabetea / mes eguna/dia

Eskatzailearen sinadura / Firma del solicitante Ordezkariaren sinadura / Firma del representante

3. Nik / Yo, _____ k, NAN zk. / con DNI _____
ordezkariak eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak / nombre y apellidos de la persona que solicita la representación
Nire ordezkari izateko ahalmena ematen diot persona honi / Otorgo mi representación a _____
ordezkariaren izen-abizenak / nombre y apellidos de la persona a la que otorga su representación
NAN zk. / con DNI _____ eta telefonoa / y teléfono _____
Eskabidea izapidetzeko eta behar diren egintza guztiak egiteko, nire ardurapean parte hartzen duen adingabeok «Udalekuak 2019» kanpainan parte hartzeko aukera izan dezan / Para realizar la tramitación de solicitud y cuantas acciones sean necesarias para que la persona menor participante bajo mi responsabilidad pueda acceder a la campaña «Udalekuak 2019».

_____n, 2019ko _____(ren) _____(e)(a)n.
Tokia / lugar hilabetea / mes eguna/dia

Eskatzailearen sinadura / Firma del solicitante Ordezkariaren sinadura / Firma del representante



II. INPRIMAKIA / ANEXO II

DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA
(DATU PERTSONALEN BABESTEARI BURUZKO 2016/679 ERREGELAMENDUA [EB])
INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS
(REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS)

Tratamenduaren arduraduna Responsable del tratamiento	Bizkaiko Foru Aldundia / <i>Diputación Foral de Bizkaia</i> . Euskara eta Kultura Saila / <i>Departamento de Euskera y Cultura</i> . Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritza Nagusia, Recalde zumarkalea, 30, 2.º, 48009-Bilbao / <i>Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, calle Alameda Recalde, 30-2.º, 48009-Bilbao</i> .
Datuak babesteko ordezkararen kontaktu datuak Contacto de la persona delegada de protección de datos	Bizkaiko Foru Aldundia / <i>Diputación Foral de Bizkaia</i> . Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila / <i>Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales</i> . Lege Aholkularitza, Informazio Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala – Kale Nagusia, 25, (48009-Bilbao) / <i>Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos, Gran Vía, 25, 48009-Bilbao</i> .
Tratamenduaren helburua eta datuak gordetzeko epeak edo irizpideak Finalidad del tratamiento, y plazos o criterios de conservación de los datos	Udalekuak programaren kudeaketa / <i>Gestión del programa Udalekuak</i> .
Tratamenduaren zilegitasuna Licitud del tratamiento	Interesdunaren beren-beregiko baimena / <i>Consentimiento explícito de la persona interesada</i> . 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko Harremanei buruzkoa, 7.c.2 artikulua / <i>La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, artículo 7.c.2</i> .
Jasotzaileak Destinatarios	Datu horiek Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiei emango zaizkie, Gipuzkoa eta Arabako udalekuetara doazen Bizkaiko erabiltzaileak kudeatu ahal izateko / <i>Los datos personales serán facilitados a las Diputaciones Forales de Gipuzkoa y Araba, con el objeto de gestionar las personas de Bizkaia asistentes a los Udalekus de Gipuzkoa y Araba</i> .
Interesdunaren eskubideak Derechos de la persona interesada	Interesdunak aukera izango du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien tratamenduari mugak jartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko / <i>La persona interesada podrá acceder a sus datos; solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento; y oponerse a este</i> . Eskubide horiek erabiltzeko, idazki bat bidali beharko dio, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabilita, tratamenduaren arduradunetako bati, edozeini: Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia. Recalde zumarkalea, 30, 2.º, (48009-Bilbao) / <i>Para ejercerlos, enviará un escrito, a través de cualquiera de las formas establecidas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Pública, a cualquiera de los responsables de tratamiento: Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, calle Alameda Recalde, 30, 2.º, (48009-Bilbao)</i> . Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (hau da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari) / <i>La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Agencia Vasca de Protección de Datos)</i> .

Onartzen dut neure datu pertsonalak tratatuak izatea / *Consiento el tratamiento de mis datos personales para la finalidad descrita anteriormente.*

Sinadura / Firma

Bilbon, 20__ (e)ko _____ ren ____ (e)(a)n.
En Bilbao, a ____ de _____ de 20__.